

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Aurki ikusgai: martxoak 31

LYNETTE YIADOM-BOAKYE

HALAKO ILUNABAR BIZIRIK

Lynette Yiadom-Boakye *Halako ilunabar bizirik*

- Datak: martxoaren 31tik irailaren 10era, 2023
 - Komisarioa: Lekha Hileman Waitoller
-
- Zoriona, adiskidetasuna edo bakardadea islatzen duten eguneroko uneetan irudikatutako pertsonaia atemporalen margolanengatik ezaguna, Lynette Yiadom-Boakyeren olio-pintura oparoek fikziozko pertsonaiak erretratatzeko dituzte, pintzelkada solteak eta hondo teatralak erabilia.
 - Artista eta idazle gisa garatzen duen fazeta bikoitza titulu irudimentsuetan antzeman daiteke; esplikatu baino gehiago margolanei laguntzen dieten tituluak dira, hausnarketarako bidea ematen dutenak.
 - Margolanetan irudikatutako figurak ez dira modelo errealak; xehetasunak ere, besteak beste arropa edo jantziak, oinetakoak —edo oinetakoen falta— ez datoz bat modelo errealekin eta ez dute irudiak leku edo denbora jakin batean kokatzeko aukerarik ematen.

Guggenheim Bilbao Museoak *Lynette Yiadom-Boakye. Halako ilunabar bizirik* aurkezten du: Lynette Yiadom-Boakye artista eta idazleak 2020 eta 2023 bitartean egindako 70 pintura eta marrazki baino gehiagoren hautaketa bat lehen aldiz ikusgai jartzen duen erakusketa. Hala, erakusketa hau aukera paregabea da artistaren jardunaren haria ezagutzeko: giza esperientziarekin zerikusia duten pintura iradokitzaileak sortzea. Duela gutxi Yiadom-Boakyek ikatz-ziriz egindako marrazkiei ekin die berriro; berehalakotasun sentzazioa sortzen duten lanak dira, beren eskala intimoagatik eta darien inprobisazio kutsuagatik. Marrazki horiek pinturarekin batera ikustean, agerian geratzen da artistak sakonetik ezagutzen dituela eta trebezia handiz erabiltzen dituela teknika desberdinak.

Lynette Yiadom-Boakye (Londres, 1977) zoriona, adiskidetasuna edo bakardadea islatzen duten eguneroko uneetan irudikatutako pertsonaia atemporalen margolanengatik da ezaguna. Mihisea edo liho zimurtua euskarriztatzen duten bere olio-pintura oparoek fikziozko pertsonaiak erretratatzeko dituzte, pintzelkada solteak eta hondo teatralak erabilia. Artistak ez du modelo bizidunekin lan egiten, irudiekin baizik; iturri desberdinetatik hartutako konposizioak dira, besteak beste, ebakinen eta marrazkien albumak, eguneroko bizitzaren oroigarriak eta behaketak. Xehetasunek, besteak beste arropak edo jantziak, oinetakoak —edo oinetakoen faltak— ez dute irudiak leku edo denbora jakin batean kokatzeko aukerarik ematen. Bere obran, halako intriga sentzazioa sorraraziz, maiz ageri dira animaliak, haien artean hegaztiak, azeriak, hontzak eta txakurrak, eta euren maskota izaera aditzera ematen dute zeharka, nahiz eta batzuk animalia basatiak izan. Ikuslea gelditzera eta arretaz behatzera, artistak ehuntzen dituen irudimenezko kontakizun bisualetan barrena sartzerako gonbidatzen duten margolanak

dira bereak. Bestetik, obren titulu poetikoek hausnarketarako bidea ematen dute eta irudimena askatzeko aukera zabala eskaintzen diete ikusleei.

Pinturan lor daitekeenak, pinturaren materialtasunak eta kolorearen zein konposizioaren potentzialak eragiten dioten jakin-min handian oinarritzen da Yiadom-Boakyeren lana. Hala, pinturaren alderdi materialekiko interesak modelo bizidunekin lan egitetik —hurbilketa zeharo zorrotzez egin ere— berak asmatutako irudiak sortzera eraman zuen, eta horrela modu espontaneoagoan margotzea eta doitasun teknikoaz gutxiago kezkatzea lortu zuen.

Artistak idatzi ere egiten du, eta hori antzeman egiten da bere obren titulu irudimentsuetan: izenburuak artelanen azalpenak baino, haien lagungarri dira. Artistak honela laburbiltzen du bi diziplinekin duen harremana: “Margotu ezin dudanari buruz idazten dut eta idatzi ezin dudana margotzen dut”.

Literatura, poesia eta musika dira Yiadom-Boakyek pintore eta idazle gisa egiten duen sortze-lana elikatzen duten indarretako batzuk. James Baldwin, Okwui Enwezor eta Toni Morrison bezalako autoreak inspirazio iturri dira artistarentzat: testuen hautaketa bat erakusketaren ondoan izango den irakurketa-gelan egongo da ikusgai. Era berean, artistak berak abagune honetarako propio bildutako erreprodukzio-zerrenda bat egongo da eskuragarri bisitarientzat.

Biografia

Yiadom-Boakye 1977an jaio zen Londresen, Ghanako familia batean, eta gaur egun hirian jarraitzen du bizitzen eta lanean. Saint Martins College of Art and Design, Falmouth College of Arts eta Royal Academy Schools ikastegietan aritu zen. Azken hamarkadan, Yiadom-Boakyeren obrak erakusketa monografikoak izan ditu sona handiko erakundeetan, besteak beste: Serpentine Gallery, Londres (2015); Haus der Kunst, Munich (2015); Kunsthalle Basel, Suitza (2016); New Museum of Contemporary Art, New York (2017); Tate Britain, Londres (2020/2022); MUDAM, Luxenburg (2020); Kunstsammlung Nordrhein-Westfalen, Düsseldorf (2021); eta Moderna Museet, Stockholm (2021). Yiadom-Boakyek Kieveko Pinchuk Art Centre erakundearen Future Generation Art Prize saria jaso zuen 2012an, eta Pittsburghheko Carnegie International erakundearen 57. saria 2018an.

DIDAKTIKA

Lynette Yiadom-Boakye IDAZLEA

Erakusketaren osagarri den Didaktika, 201 aretoan kokatuta dago. Oraingoan Lynette Yiadom-Boakye idazle gisa duen alderdia aztertzen duen ikuspegi batekin aurkezten da, irakurketa gune baten bere gustueko idazleen liburuein, hala nola James Baldwin, Ted Hughes, Tony Morrison o Zora Neale Hurston besteak beste. artistaren beraren istorio labur bat biltzen duen katalogoaz gain. Bere aipamen adierazgarri batek espezioko horman janzten ditu.

Jardueren bitartez, artistak dituen beste interes batzuk ere islatuko dira, zinema independentea esaterako.

Jarduerak

Erakusketaren aurkezpen-hitzlaldia (martxoak 29)

Lynette Yiadom-Boakye eta Lekha Hileman Waitoller, erakusketaren komisarioak pandemia aurretik sortu zen proiektu honen garapenari buruz hitz egingo dute, orain Museoko bigarren solairuko areto batzuetan dagoen erakusketaren kariaz.

Hausnarketa partekatuak

Bisitaldi bereziotan Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek erakusketaren edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte:

- Arte-arduradunen ikuspegia (apirilak 19): Lekha Hileman Waitoller Museoko arte arduraduna eta erakusketaren komisarioa.
- Funtsezko kontzeptuak (apirilak 26): Luz Maguregui Urquiza. Hezkuntza eta Interpretazioko koordinatzailea

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Zinema arratsaldeak Museoan (maiatzak 10, 11, 12)

Lynette Yiadom-Boakyerentzat erreferentziazko zuzendarien film aukeraketa baten emanaldia: Pedro Almodovar, Charles Burnett, John Cassavetes, Claude Chabrol edo Pier Paolo Pasolini.

Sormen saioa +18 *Ipuin laburrak* (ekainak 1)

Yiadom-Boakye-k idazten dituen fikzio laburrei lotuta, helduentzako tailerra eskainiko du Txani Rodríguez kazetari, idazle eta gidoilariarekin (Euskadi Literatura Saria gaztelaniaz 2021), idazle baten narratibako sormen prozesuari buruz.

KATALOGOA

Erakusketaren katalogo ilustratuan Lynette Yiadom-Boakyeren testu berri bat dago, *Hegoaldera arraunean laguntzaren bila* izenekoa, baita Kodwo Eshun idazle eta zinemagilearen eta Lekha Hileman Waitoller komisarioaren beste bana ere.

Azaleko irudia:

Lynette Yiadom-Boakye

Atseden jainkotiarra (Divine Repose), 2021

Olio-pintura liho gainean

90 x 85 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazioa eta Marketina saila
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Lynette Yiadom-Boakye. Halako ilunabar bizirik
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren web-orriko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratzeko aukera duzue, bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

- Ematen diren irudiak *Lynette Yiadom-Boakye. Halako ilunabar bizirik* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2023ko martxoaren 31tik irailaren 10a bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzkiekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoen egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta aldez aurretik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan, edo posta elektronikoko helbide honetan:
media@guggenheim-bilbao.eus

Lynette Yiadom-Boakye
Aztorea (Goshawk), 2020
Olio-pintura mihise gainean
70 x 50 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork
© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye
Gantzutuak babestu (Harbour The Anointed), 2020
Olio-pintura mihise gainean
100 x 75 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork
© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye


Ur-benarriza (Aquatic Warbler), 2021

Olio-pintura liho gainean

90 x 65 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye

Bihotzaren gainetik eta gogoaren azpitik (Above The Heart And Below The Mind), 2021

Olio-pintura mihise gainean

60 x 50 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye

Labirintoa (Maze), 2021

Olio-pintura mihise gainean

90 x 80 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye

Estasi-zurrustak (Ecstatic Streams), 2021

Olio-pintura liho gainean

100 x 80 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye


Atseden jainkotiarra (Divine Repose), 2021

Olio-pintura liho gainean

90 x 85 x 3.6 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023



Lynette Yiadom-Boakye

Ambassadoria, 2022

Ikatz-ziria paper gainean

56 x 76 cm

Eskaintza: artista, Corvi-Mora, Londres, eta Jack Shainman Gallery, NewYork

© Lynette Yiadom-Boakye, Bilbao 2023

